


## Lasarte-Oriako parrokiko talde bat Lur Santuan errores

Iaz Erromara egin zuten bidaiak eta Vatikanora ezagutu zuten. Aurten Palestina eta Israelen ibili da Lasarte-Oriako parrokiko talde txoa eta ebanjelioan agertzen diren hainbat leku ezagutu dituzte, baita lurralde horretan dauden erlijio ezberdinen talka ere. Xabier Andonegi parokoarekin solasaldia izan dugu bidaiari buruz gure diago jakiteko. /4-5



# Semblante Andaluz elkarteko Aste kulturala aurrera doa

■ Asteburu honetan, hitzaldia, herri bazkaria eta elkarteko taldeen emanaldiak

Astelehenean Semblante Andaluz elkarteak bere Aste Kulturalari hasiera eman zion Ohorezko ardoarekin.

Ekitaldia baino lehen, lehenengo astean zendu zen Juan Jimenez kidearen oroimenez minutu bateko isiluna egin zen.

Nahiz eta elkarteAN kide gutxi bildu, bertan zeuden kide eta udal ordezkariak, Ana Urchueguia alkatea, Iñaki Mugika alkate ordea eta Jesus M. Zaballosek giro onean dastatu zituzten Andaluziako produktuak.

Astean zehar hainbat ekitaldi burutu dira, hala nola, kartetako txapelketak eta potok eta patata tortila lehiaketa. Gaur, haurrentzako marrazki lehiaketa antolatuta da. •



## Larunbatean motorrez betetzen Lasarte-Oria

Lehenengo larunbatean, urriaren 10ean, Mendi Kafe Rock tabernaren bosgarren eta Drakos Custom motorren taldearen seigarren urteurrena ospatu zituzten gure herrian.

Guztira, motor elkarte ezberdinetako 100 bat lagun bildu ziren ospakizunetan.

Hauek eguerdian hasi ziren, tabernan egin zen hamaiketakoarekin. Ostean, motor ezberdinak herriko kaleetatik barrena ibili eta guztiak Larre jatetxera joan ziren bazkaltzera.

### Loquilloren bisita

Bazkal ostean, Mendi Kafe Rocken jarraitu zuen festak. Giro onean Arantxa & Agus

Djek musika jarri zuten eta Jose Maria Sanz Loquilloren bisita ere izan zen.

Honek jendea agurtu, autografo ugari sinatu eta argazki pila ateratu zituen herriko jendearekin. Gainera, zozketarako oparietako bat berak emana zen, 20 urte baino gehiago zituen argitalpen mugatuko singlea. Eta bertan zegoela baliatuz, Loquilloren eskuetatik hartu zuen oparia irabazleak.

Era berean, Mendi Kafe Rock tabernak eta Drakos Custom elkarteak eskerrak eman nahi dizkiote Lasarte-Oriako Udalarari, izan duten elkar ulertzearengatik eta, era erosoan, ibilgailuak Dorre parkean aparkatzen uzteagatik. •



Arg. Mendi Kafe Rock

Loquillo Mendi Kafe Rock tabernara gerturatu zen festaz gozatzeko.

### AISIA /3

Buruntzaldeko ibilbideen bigarren eguna igandean

### GIZARTEA /3

Lasarte-Oriako 22 odol emaileen eskuzabaltasunak saria du

### KIROLA /6

LOKEko judokak nazioarteko txapelketetan lehiatu dira



MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



**Neure kabuz**



**Nobela**

Duela egun gutxi banatu dira sei Nobel Sariak. Aurten horietatik ezagunena Pakearen Nobel saria izan da, Barack Obama berak eraman baitu, "azkarregi" ziurrenik (baita beste ustez ere). "Nire" Nobel saria, aldiz, ekonomia-koa da, gazteena Nobel sariaren barnean. Suediako Banku Zentralaren saria da Alfred Nobelen omenez ezarria 1969. urtean. Aurten AEBko Elinor Ostrom eta Oliver E. Williamson ekonomisten eskuetara joan da. Bi kasutan "governantza ekonomikoari buruz egindako azterketagatik" eman zaie Nobel saria, hau da, erabaki ekonomikoak nola hartzen diren aztertzeagatik. Lehenengoaren kasuan "bereziki auzo-ondasunak" aztertzeagatik eman zaio, baliabide horien kasuan (arrantza-baliabideak, adibidez) sarritan ustiapena gehiegizkoa suertatzen baita, horretarako konponbideak aztertuz. Elinor Ostrom Nobel saria jaso duen lehenengo emakumea da (64 saritu izan dira guztira) eta onartu behar dut ez nuela ezagutzen. Williamsoni "bereziki enpresaren mugak" aztertzeagatik eman zaio. Oliver Williamson galdera kuriosoa erantzuten saiatu da: zergatik daude enpresak? Edo, zehatzago, nola azal daiteke enpresen egitura berezia, hau da, jarduera batzuk enpresaren barnean egitea eta besteak, aldiz, enpresatik kanpo?

Bukatzeko, lerro hauek idazten ari nintzela telefono deia jaso nuen. Telefonika konpainia batek deitu zuen etxera urriaren 12an eta siera garaian, noski eskaintza paregabea azaltzeko. Deitu zuen pertsonari esan nion ez zitzaizkidan egokia iruditzen horretarako deitzea festa-eguna izanda. "Gu lanean gabiltza" erantzun zidan. Aio, pelaiio ...

**Itxiald Eraskin**

**Zorion-agurrak**



**Kenai**

Zorionak zure hirugarren urtebetetzean familiaren partetik.



**Xabi**

Zorionak aitaxo, ondo-ondo pasa eta muxu erraldoi bat Naroa, Unai eta amatxoren partetik.



**Ander**

Zorionak I. urtebetetzean! Muxuak osaba Julian, izeba Manoli eta Ainara lehengusinarene partetik.



**Mario**

Zorionak Mario! 5 muxu Ane, Eneko, izeba eta osabaren partetik.



**Beatriz Romo eta Carlos Etxezarreta**

Zorionak zuen urrezko ezteietan! Ondo-ondo pasa eguna eta muxu handi bat. Lagunak eta seni-deak.



**Antonio**

Zorionak aita, animo eta muxu bat Julen, Naroa eta amaren partetik.



**Andrea, Mª Carmen eta Fermin**

Zorionak eta muxu asko hirurontzat familiaren partetik.

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
 DYA ..... 943 464622  
 Gurutze Gorria ... 943 363953  
 Udaltzainak ..... 943 362442  
 Ertzaintza ..... 943 288888  
 SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
 Euskarako Zerbitzua 943 376184  
 Kiroldegia ..... 943376182  
 Kulturetxea ..... 943376181  
 Bakezko epaitegia . 943371629  
 Zerbitzu Sozialak . 943376179  
 Zentro Zibikoa ... 943363958  
 KIUB ..... 943361605  
 Udal euskaltegia ... 943361621  
 Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Guardiak**

**Ostirala, 16**  
 Gil, Kale Nagusia 24  
 Tel.: 943 361529  
**Larunbata, 17**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371151  
**Igandea, 18**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371151  
**Astelehena, 19**  
 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
 Tel.: 943 363549  
**Asteartea, 20**  
 Urbistondo, San Frantzisko 1  
 Tel.: 943 366567  
**Asteazkena, 21**  
 Orue, Jaizkibel plaza 2  
 Tel.: 943 362652  
**Osteguna, 22**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371151

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Ezcaray-en duplex bat saldu edo alokatzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago.la berria.Tel.: 652774679

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Bikotearentzat egokia.Tel.: 657 708 866.

**Salerosketak**

• Salgai pisu bat, 2 logetakoa eta Atsobakar auzoan (fatxada txurikoa).Tel.: 627 310 660.

• Gorpil-aulki elektrikoak salgai. Dragon modelokoa.Tel.: 629 936420.

• Salgai Golf III 90 c.v.TDI egoera onean. 1.996 urtekoa da.Tel.: 660 552 353 / 653 732 121.

**Lan-eskaintzak**

• Hilabeteen bi astez, 8:00etatik 9:00etara, eta aste betez, 16:30etik 18:00etara, haurrak ikastolara eraman edo jasotzeko pertsona baten bila gabilta. Harremanetarako zenbakia, 626 614 1111.

• 3 urteko haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. 12:00etatik 16:00ak arte inguru. Telefonoa: 646645445

• Frantseseko klase indibidualak emateko irakaslea behar da Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 699 335 325.

**Lan-eskariak**

• Pintorea eskaintzen da. Aurrekontua konpromezurik gabe. Harremanetarako 667 610 909 (David) edo deivid@euskalnet.net.

**Oharrak jartzeko:**

www.txintxarri.iragarkilaburak.com • txintxarri@txintxarri.info  
 Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

**Jaiotzak**  
 Ane Martin Echezarreta, urriaren 5ean

**Heriotzak**  
 Jesús Noreña Suberviola, urriaren 9an 57 urte zituela  
 Juan Echeverría Echepare, urriaren 8an 53 urte zituela  
 Juan Jimenez Sabariego, urriaren 8an 60 urte zituela  
 Mª Carmen Elizegi Lasarte, urriaren 8an 86 urte zituela

**GAZTE INFORMAZIOA GIPIZKOIA**

**Gazte Informazioarako Bulegoa**  
 Manuel Lekuona kulturetxea  
 Tel.: 943 376181

**Tolosaldeko Informazio eta Komunikazioa Teknologien Astea**  
 Tailerra urriaren 27an izango da, goizeko 09:30etik 11:30era, bi orduz. Apatxa-Erreka industrial-dean, Ibarra, egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero jo [www.tolosaldeagartzen.net](http://www.tolosaldeagartzen.net) web atarira; [enpresa@tolosaldean.net](mailto:enpresa@tolosaldean.net) helbidera edo 943 65 45 01 telefono zenbakira.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Buruntzaldeko Ibilbideen bigarren eguna igandean

TXINTXARRI

Gure eremuan dauden bidezi-dor eta bideak osatzen duten 50 kilometrotako sareak eskualdeko landa-ingurune naturala ezagutzera ahalbidetzen dute, baita herri batetik bestera igarotzea ere.

Hauei esker, Buruntzaldeko baserri, baseliza, karobi eta natura zein kultura aldetik interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbiltzeko aukera paregabea egongo da igandean 9:00etatik 14:00etara eskualdeko herriak antolatu duten *Buruntzaldeko Ibilbideen bigarren eguna*ri esker.

## Kontrol guneak

Herri bakoitzean kontrol gune bat egongo da, argibideak eman eta mokaduak eta edatekoak banatzeko.

Gure herrian San Pedro elizaren atzealdean egongo da; Usurbilen Santueneako auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean eta Andoain eta Urnietan Udaletxeen aspian.

Honetaz gain, Buruntzaldeko herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatua, profila eta distantziak erakusten dituzten panelak daude; bideetan, berriz, norabidea eta distantzia agertzen duten geziak.

Seinale horiek guztiak udal-herri bakoitzaren identifikazio kolorea aintzat hartuz daude



Garai batean Plazaolako trenak egiten zuen bidetik pasako da ibilbideetako bat.

ipinita, Lasarte-Oriako kolorea urre zaharra da, Urnietakoa berdea, Usurbilekoa laranja eta Andoainekoa urdina.

Era honetara, seinale bat bidean ikusterakoan ibilbidearen zein puntutan zauden jakingo duzue.

## Autobusa

Egun honetan parte hartzen duen bakoitzari txartel bat emango zaio bere herriko kontrol gunean, abiatzen den lekuko ziguiluekin.

Garrantzitsua da hau hartzea. Izan ere, txartela aurkeztu behar baita herri batetik bestera antolatu den autobusa hartzeko.

Autobusaren ordutegia eta geltokiak honako hauek ditugu: Urnietako Kiosko geltokia 12:00etan, 12:50etan eta 13:40ean; Andoaingo Goiko plazaren atzealdean 12:10etan, 13:00etan eta 13:50ean; Lasarte-Oriako Dorretzeko biribilgunean 12:20etan, 13:10etan eta

14:00etan eta Usurbilgo Udaletxe aurrean Nagusia 22, zenbakian, 12:30ean, 13:20ean eta 14:10ean.

## Kamiseta eskuragarri

Eta honetaz gain, bi ibilbide edo Andoain-Usurbil ibilbidea egiten duenak kamiseta bat lortuko du.

Horretarako, Ibilbideetako kontrol guneetan ziguiluak bildu eta ibilbideko azkeneko kontrollean txartela erakutsi beharko da. •

## URRITASUNA

### Umeentzako autoeskola Urbil merkatal gunean

Bihar haurrentzako lehenengo autoeskola mugikorra iritsiko da *Urbil* Merkatal Guneko aparkalekura.

*Kontzientziatu zaitetz! Urritasunarekin ere gai zara kanpainaren autoeskola berezia dugu hau. 6 eta 12 urte arteko urritasuna eta urritasunik ez duten haurrei zuzendua dago eta helburua urritasuna duten pertsonen bide-hezuntza arloan duten gaitasuna erakustea da.*

Michelin Lasarte, Adecco fundazioak eta ONCEk sustatutako egitasmo honek kirolari eta kirol elkarte ezberdinen babes du, esate baterako, Mikel Odriozola atleta, Astana txirrindulari taldeko Haimar Zubeldia edo Euskaltel Euskadi txirrindulari taldea. Horieta batak gainera bihar egongo dira bertan.

100 metro karratuko azpiegituran, bi leku dituzten gasolinako autoak ibiltzeko zirkuituan haurrek haien trebetasuna erakutsi ahalko dute.

Baina lehenik, gela didaktikoan bide-hezuntzari buruz dakitena neurtu eta joko baten bidez gauza gehiago ezagutu ahalko dituzte.

Autoeskola berezi honetaz gozatzeko, hurbil zaitetzte, goizean 11:00etatik 13:00etara edo arratsaldean 15:00etatik 19:00etara eta kontzientziatu. •

## BATEA OPERAZIOA

### Rafa Diez Usabiaga atxilotu dute

Asteartean, Rafa Diez Usabiaga lasarteoriatarra eta LABeko idazkari nagusi ohia, atxilotua izan zen LABen Donostiako egoitza nagusian Baltasar Garzon epailearen aginduz.

*Batea* operazioa deritzon honetan, Diezekin batera Arnaldo Otegi, Rufino Etxeberria, Sonia Jacinto eta Arkaitz Rodriguez atzeman zituzten LABen egoitzan; Iruñean Txeluei Moreno, Miren Zabaleta eta Ainara Oiz, eta Hernanin Amai Esnal eta Mañel Serra.

Auzitegi Nazionalako epailearen arabera, atxilotuak Batasunaren zuzendaritza berrosatu nahian zebiltzan, *Bateragune* organoa sortuz. Probak eskuratzeko LABeko egoitza eta atxilotuen etxeak arakatu zituzten egun horretan bertan.

Asteazkenean, atxilotuak Madrilera eramane zituzten eta Garzonaren aurrean adierazpenak noiz egingo zain daude. •



## Hitzen lapurra antzerkiaren emanaldi berezia gaur

Antzerkia, txotxongiloak eta bertsoak uztartzen dituen *Hitzen lapurra* lana antzeztuko dute gaur, arratsaldeko 18:00etan, Ibai Esoain, Ainhoa Alberdi eta Alex Tellok Kultur etxean.

Emanaldi berezia benetan, izan ere, bi urtetan lanarekin batetik bestera ibili ostean, igandean, *Nafarroa Oinez*-en azken

emanaldia egingo baitute.

## Hitzen lapurra

Hitzak dira protagonista Ander eta Amaia txotxongiloen, eta, Libe eta Ximon antzeztuen istorioan. Hiru ordu laurdunen bueltan, hitzarekin ibiliko dira jolasean txotxongiloak, antzeztuak, baita hiru eta zortzi urte bitarteko ikus-entzuleak ere. •

## Odol emaielen eskuzabaltasunak saria du

Igandean Gipuzkoako Odol Emaielen Oria Beheko Ordezkaritzetako kideak Urnietan bilduko dira.

Urtero legez, bilkura mezarekin hasiko da. Mikel Deunaren parrokiari izango da, 11:00etan eta nahi duten kideek parte hartu dezakete.

Eguerdi aldera, Urnietako ordezkariek ongi etorria egingo diete Oria Beheko Ordezkaritzetako kide guztiei San Juan Enparantzan.

## Sarituak

Ostean, ordezkaritza bakoitzean 25, 40 eta 50 aldiz odola eman duten odol emaleei intsignia eta diplomak banatuko zaizkie Lekaio Kultur etxean.

Lasarte-Oriako ordezkaritzan 22 kidek eskuratu dute aurten ohore hori.

25. odol-emariagatik honako hauek dira sarituak, Amaia Anabitarte, Conchi de Pablos, Francisco Garcia, Mari-Mar Jimenez, Milagros Larburu, Joseba Liceaga, Igor Lopez, M<sup>a</sup> Pilar Lucero, Juan Martin, Maria Paz Mendez, Itxaso Olasagasti, Jose Antonio Urkizu, M<sup>a</sup> Carmen Vazquez eta Juan Fco. Vega.

Eta M<sup>a</sup> Angeles Amores, Pilar Arrospeide, Soledad Semperena, Maite Yeregui, Dioniso Garcia, Jose M<sup>a</sup> Hernando, Jose Luis Lopez eta Jose Maria Zuriarraini 40 eta 50 emari egin dituztelako eskuratuko dute intsignia.

Eta batzarra era paregabean bukatzeko, Oria Beheko Ordezkaritzetako kide guztiek bazkariak gozatzeko aukera izango dute Urnietako pilotalekuan, 14:00etatik aurrera. •



Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 17

**10:00etan**, Ostadar-Euskalduna (I. Kadetea) Michelinen.  
**11:30ean**, Ostadar-Real Union (Infantil txikiak) Michelinen.  
**13:00etan**, Ostadar-Internacional Manteo (Partehartze infantilak) Michelinen.  
**15:30ean**, Ostadar-Martutene (I. Jubenila) Michelinen.  
**17:15ean**, Ostadar-Martutene (Erregional Gorena) Michelinen.

**09:00etan**, Luberrri-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Berio, Donostian.  
**10:30ean**, Urki-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Unbe Inf, Eibarren.  
**16:30ean**, Hondarribia-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Ondartza, Hondarribin.  
**17:30ean**, Amaro-Texas Lasarteerra (I. Erregionala) Usabal, Tolosan.

Igandea 18

**10:30ean**, Vasconia-Texas Lasarteerra (I. Jubenila) Martutene, Donostian.  
**17:00etan**, Luberrri-Ostadar (Emakumezko Erregionala) Berio, Donostian

FUTBOL 7

Larunbata 17

**20:00etan**, Hifi Berria Musical-Niasa-Corpa (III. Maila) Don Bosco, Pasaian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 17

**17:30ean**, Aldaz H.K.-Laskorain (Nazional B maila) Kiroldegian.

Igandea 18

**11:00etan**, ISU leihoak-Azpeitiko A.F. (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

**Michelingo areto-futboleko gunean**

Ostirala 16

**20:30ean**, Naiban-Buenetxea

Larunbata 17

**10:00etan**, Biyona-Obelix  
**11:00etan**, Lekuona-Mena-Jalai  
**12:00etan**, Mingallon-Morrison  
**13:00etan**, Siglo XX-Ilargi  
**15:00etan**, Danena-Epel  
**16:00etan**, Izkiñá-Izarra  
**17:00etan**, Ainhoa-ISU Leihoak  
**18:00etan**, Viña d. Mar-Oria krist.

Igandea 18

**10:00etan**, Okela-Goiz Argi  
**11:00etan**, IOB H.K.-Tragoxka



PILOTA

Larunbata 17

**11:15ean**, Intza-Goierri (Eskuz binaka II. Kadetea) Michelinen.

**11:15ean**, Intza-Eibar (Eskuz binaka I. Seniorra) Michelinen.

**11:15ean**, Intza-Aurrera-Saiaz 2 (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.

# LOKEko judokak nazioarteko txapelketetan lehiatu dira

■ Beñat Elizaldek zilarrezko domina eskuratu zuen Irunen eta Leire Zubizarretak brontzea Palermon

LOKEko judokak azken asteetan batetik bestera ibili dira lehiatzen eta lan ona egin dute guztiek. Azpimarragarriak dira, Beñat Elizaldek Irungo Nazioarteko San Martzial txapelketan eskuratu zuen bigarren postua eta Leire Zubizarretak, Palermon, Hondarrabiko taldearekin lortuta hirugarrena.

Beñat Elizaldek, urriaren 3an eta 4an burutu zen Irungo San Martzial Nazioarteko Txapelketan Senior mailan zilarrezko domina lortu zuen.

LOKEko entrenatzaileak Gorka Aristegik aipatu digunez, "lau konbate irabazi zituen oso maila altua erakutsiz eta bakarrik finala galdu zuen."

"Emaizta hau oso garrantzitsua da denboraldiari begira," atxiki du entrenatzaileak,

Hirugarren Palermon

Bestetik, Leire Zubizarretak hirugarren postua eskuratu zuen Palermon lehengo asteburuan burutu den Falcone & Borcelino nazioarteko txapelketan Hondarrabiko Ama Guadalupeko taldearekin.

Txapelketa taldekakoa zen eta 4 mutil eta 3 neska lehiatu ziren, Ama Guadalupe taldeko bost judoka, Gironako bat eta Leire Zubizarreta lasarteoriatarra.

LOKEko entrenatzaileak azaldu digunez, "Hondarrabiko gure lagunek Leire gonbidatu zuten bere mailan gaur hoberenatariko delako."



Arg: Ama Guadalupeko

Leire Zubizarreta, behean ezkerreko lehena, Palermon lehiatu zen taldearekin.

Maila altuko lehiaketa izan zen eta Frantzia eta Italiako talde ezberdinen aurka aritu zen Ama Guadalupeko taldea, baita munduko txapeladun baten aurka ere.

Kadeteak Paun

Era berean, Mario Garrido eta Esteban Martinez kadeteak, berriz, Paun, Frantzian lehiatu ziren urriaren 11ean Akitania-ko kadeteen txapelketan.

Txapelketa garrantzitsu0

honetan, Aristegi entrenatzaileak azaldu digunaren arabera, "Mariok 3 konbate irabazi eta bat galdu zuen; Estebanek, aldiz, 2 irabazi eta bat galdu zituen."

Nahiz eta Lasarte-Oriako bi judoka gazteak txapelketako lehenengo postuetan ez egon, LOKEko entrenatzailea pozik agertu da, "biak oso ondo aritu ziren lehiatzen eta esperientzia gehiago bereganatu dute txapelketari esker." •

Kiroletako oharrak

**Martijatarren omenaldia** Sasoeta-Saustatxo futbol taldeko entrenatzaile lanetan ibili ziren Jose eta Iñaki Martija anaien omenaldia bihar da.

**11:00etan**, futbol partida jokatuko dute Sasoeta ikastolako zelaian.

**13:30ak** aldera, Sasoeta auzoko tabernatan poteoa egin eta **14:15ean**, Goiegin bazkaria antolatu dute.

Igerileku txikia itxia

Haurtxoekin antolatu diren igeriketa ikastaroak baldintza ego-kietan garatu daitezzen,

larunbatetan, goizeko 10:30ak eta 11:00ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

**Ostadar K.F.-ko Loteria** Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai.

Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkar-tearantz dira.

Interesa duenak kirol elkarte-ko egoitzara hurbiltzea besterik ez du. Geltoki kaleko 25. zenbakira.

lazko abenduan zendu zen Jose Luis Aranburu herritarra, amiantoak sortutako gaixotasunaren ondorioz. Aranbururen lagunek eta senideek omenaldi bat egin nahi diote berak hainbeste maite zuen Aralar mendian.

Omenaldia Aralarako San Migeleko aparkalekuan egingo diote goizeko 11:30ean. Ondoren, Aldaz herriko Barnekoetxe jatetxera joango dira babarrun jana egitea.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete hau antolatzen lagundu dieten guztiei eta bereziki Nahia Iparragirre, Joxe Krutz Labaka eta Ane Labakari. •



## Egunero

### Erakusketa

ISLA BISUALAK izeneko erakusketa. Oscar Pozosen, argazkiak. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

### Erakusketa

HIESARI BURUZKO erakusketa Medicus Mundi erakundearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

## Ostirala, 16

### Kontzertua

PLASTIC taldearen emanaldia. Rocka eta brit pop akustikoa jorrazten dute. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

### Bakarriketa

ENRIQUE EL GRANDE artistaren emanaldia. Udaberri tabernan, 23:00etan.



## Antzerkia kulturetxean

Txalo produkzioak bi antzezlan eskainiko ditu larunbatean kulturetxean. Lehenengo saioa, ATE-JOKA euskaraz izango da 20:00etan. Bigarren saioa, PAREJA DE TRES 22:00etan izango da. Bikoteen arteko elkarbizitza kontatuko digute antzezlan honetan. Elkarbizitza hori ez da erraza izaten, baina zure lagun onenarekin bai? Zalantzak antzezlanak argituko ditu...

LARUNBATEAN, 17AN  
20:00ETAN EUSKARAZ  
22:00ETAN GAZTELANIAZ  
KULTURETXEAN  
SARRERA 10 EURO

## Igandea, 18

### Zinea

CHER AMI haurrentzako euskarazko filma. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



## Asteazkena, 21

### Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ

## Osteguna, 22

### Zinea

DESGRACIA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

## Semblante Andaluz elkartearen VII. Aste Kulturala

### Ostirala, 16

18:00etan, HAURRENTZAKO MARRAZKI LEHIAKETA. Jolasak eta txokolatada ere bai.

### Larunbata, 17

19:00etan, FOLKLOREA ETA GASTRONOMIA ANDALUZIAR FERIETAN hitzaldia eskainiko du Rafael Gomez Priegok.

### Igandea, 18

14:30ean, HERRI BAZKARIA.

### 18:00etan,

M<sup>a</sup> Carmen Vegasen dantzako HAURREN TALDEEN EMANALDIA.

### 19:00etan,

SARIAK BANATUKO dituzte eta amaitzeko, salbe rozieroa eta Andaluziako ereserkia abestuko dira.

## Liburutegiko ordutegia

Asteleheneetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea  
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa

Urriaren 28an, Urnietan Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroari hasiera emango dio DYA Gipuzkoak.

Ikastaroa 3 astekoa izango da eta saio bakoitza bi ordukoa, 19:00-21:00etara, asteleheneetik ostiralera. Ikastaroa, DYAKo Lokalan izango da, Urnietako Idiazabal 13-behea. Matrikularen kosta, ikastarorako txostena barne, 90 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ikastaroaren kalitatea bermatzeko.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464 622 telefonora.

### Dantzako ikastaroa

Erketzeko entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoentzat daude bideratuak eta gabonak bitartean iparraldeko zenbait dantzak landuko dituzte. Plazan

gogoarekin begira ez geratzeko, orain duzu aukera.

Dagoeneko entsaioak hasi dira; asteartero, arratsaldeko 20:00etan Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko erai-kinean. Ikastaroa doan da eta parte hartzeko entsaiora azaldu besterik ez duzu, animatu zaitez!

### Urrezko ezteiak

Beatriz Romo eta Carlos Etxezarretak urrezko ezteiak ospatuko dituzte larunbata honetan, Oriako Karmengo kaperan, eguerdiko 12:00etan. Zorionak!

### Oztabide elkarteko bilera

Arrambide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten zaie, urriaren 17an larunbata goizeko 11:00etan Oztabide auzo elkarteko lokalean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean, bilera egingo dela.

### Loteria

Auzotarrei jakin arazi nahi

diete eguberriko loteria salgai dagoela. 19827 zerbakia da eta Txema tabernan (Zumaburu) eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi daitezke 3 euroko partaidetzak.

### Katxalin elkarteko Loteria

Minbizi ginekologikoa edo bularreko minbizi izan duten emakumeek osatzen duten Katxalin Elkarteari lagundu nahi dioten herritarrek Eguberrietako Loterieren partaidetzak erosi ditzakete, 3 eurotan eta 0,50 eurotako dohaintzarekin, Lasarte-Oriako KIUBen, 9:00etatik 13:00etara.

### Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan, Txakunek antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten Cdak eskuragarri daudela dagoeneko Amarun Iudotekan (Ola kalea 1). Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.

### Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxo irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitezte!

### 62. urtean jaiotako afaria

1962. urtean jaiotako lasartearentzat afari bat antolatuko du azaroaren 14rako. Interezuak deitu dezakezue 19:00etatik aurrera ondoko telefono hauetara: Tel.: 646 274 376(Bea) /659 950363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31. Animatu!

### Helduen antzerki taldea

Landaberri Antzerki Eskolak jakinarazi nahi du helduen talde berri bat sortu dela. Talde hau ostegunetan bilduko da iluntzeko 19:30etik 21:00etara. Oraindik plazak badaudenez,

interesa dezutenok deitu 943 371448 telefonora informazioa jasotzeko edo apuntatzeko. Euskaraz izango dira eskolak, beraz, oso egokia da eskolar ikasten ari zarenontzako, eta erdoiltzen utzi nahi ez dezuenentzat.

### Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak urriaren 7an hasiko dira 18:30-20:30. Oraindik plazak badaudenez, izena emateko aukera dago kulturetxeko 2. solairuan arratsalde 18:00-19:00 bitartean, astelehenean, ostiraletan eta larunbat goizean 09:30etik 11:30era.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com

Unai Muñoa Bertsolari Txapelketa Nagusian partaide, larunbatean, urriaren 17an, Ustaritzeko Kiroleta pilotalekuan, 17:30ean

# ‘Dakidana eta naizena erakutsi nahi dut’

■ Txapelduna Egaña bada, ez da harrituko, “baina izan daiteke ezustekorik” ■ Azkenaldian beldurrez “erdi ihesi” dabilela dio ■ Bere ustez, bertsolaritza osasuntsu da garai berrietara egokitzen jakin duelako

Uztaritzen kantatuko du bihar larunbata Unai Muñoak Euskal Herriko txapelketa Nagusiko kanporaketan, Kiroleta Pilotalekuan arratsaldeko 17:30ean. Bertsotan dena emateko prest da lasarteoriatarra, aukera paregabea da beretzat Txapelketa Nagusiko kanporaketa. Txikitatik izan nahi zuen bertsolari, bospasei urterekin, oholtzara igo zen euskararen maratoian bertsoa kantatzeko.

JON ALTUNA

**E**gin berriak ditu hogeita zazpi urte, baina gauza askotan aritu da Unai Muñoa hamaseirekin ikasketak utzi zituenetik: sukaldari, harakin eta taberna baten jabe izan zen bi anaiekin batera. Gaur egun Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen ari da hezikuntza arautuko Bertsolaritza eta Ahozketasuna proiektuan.

"Nire unibertsitatea kalea izan da, eta maisurik onenak berak eman dizkit" dio lagun arte eta tertulia sakonen zaleak. Hamaika Bertuteraren sortzaile eta ekimenaren kideetako bat da, lagunartean ari dira askotan bertsotan: "Nahiko aukera izaten dut batera eta bestera ibiltzeko, eta oso gertukoa dudana jendearekin aritzeko zortea daukat, gainera".

**Bertsotan noiz eta nolatan hasi zinen?**

Etxean, aitak, eta neurri batean amak, sustatu izan dute bertso zaletasuna. Aita plazan kantuan aritutakoa da, eta ama bertso zale amorratua. Ume-umea nintzenean, aitaren tankera izan nahian edo, kantuan saiatzen nintzen. Amak dio bertsotan hizketan baino lehenago ikasi nuela, hortik ateratu kontuak.

Joxe Mari Agirretxek kariño handiz kontatzen du lehenengotariko maratoi batean oholtzara igo nintzela, bost sei urte nituenean, bertsotara. Gogoratzen dut nola galdetu zidan ea noiz hasi nintzen bertsotan: "txikia nintzenean!" erantzun nion.

**Zein oroitzen duzu Lasarte-Oriako Bertso eskolaz? Nola ikusten duzu egun eskola?**

Naizenaren puska bat da. Hamalau urte inguru nituenean nire bizitzako zati garrantzitsua bilakatu dira bertoko kideak, bakoitza era desberdin batean. Nire eboluzioan eragin handia izan dute, eta ez bertsotan bakarrik. Askok ikasi dut bertsoen aurreko tertulietan, ondo-

rengo parrandetan, Alkizan, sagardotegian... Zorionez, bertso eskolan adin eta ideologia desberdineko hainbat lagun elkartzeko gara, eta horrek kolorea ematen dio taldeari. Benetan eskertzen dut hori.

Irailaren hogeita zazpian omen du gure Patxi Etxeberria. Taldeko zaharrena. Kariño eta mimo handiz esanda, gure aitona. Helduen taldeak egonkor jarraitzen du, eta umeenak sortzen ari dira. Gainera, ekimen desberdinak antolatzeke indarra badago. Talde biziak etorkizuna dakar berekin.

**Euskal Herriko txapelketan kantatuko duzu, lehen aldia al da?**

Bai. Duela bi urte jokatu genuen Gipuzkoakoan Euskal Herrikora sailkatu izana txute bat izan zen niretzat.

**Orain nola ikusten duzu zure burua? Bertsotarako punturik onenean al zaude?**

Urte hasieran azken asteetan baino motibatua goa nengoan. Orduan, Txapelketa Nagusiari zeharka begiratzen nion, baina azken aldian erdi ihesean nabil. Beldurra. Hanka sartzeko beldurra da. Konturatu naiz nire buruari maila ona ematea eskatzen diodala, eta beti dago erortzeko arriskua. Lasaia hartu eta transzendentzia kendu nahi diot lehiri. Hala ere, nire maila ematen badut aurrera egiteko aukerak ere ikusten ditut. Aldartearen determinantea izango da.

**Urduki jartzen hasi al zara jada? Nola lortu daiteke aldarte onean igotzea oholtza gainera?**

Zestoan, publikoaren txalo artean bertsolariak oholtzatu zirenean, barruak buelta eman zidan, nire burua bertan irudikatzen nuen, eta uff... Lehiak berekin dakartzela beldurra eta urduritasuna. Bentratzen denak eta gozatzen duenak asmatuko du.



Lehen aldiz kantatuko du Unai Muñoak Euskal Herriko Txapelketa Nagusian.

**Nola prestatu duzu txapelketa? Zerbait berezia egin al duzu?**

Ez dut bereziki plan bat egin entrenamendurako. Tarteka bildu izan naiz beste zenbait bertso kiderekin, elkarrizketa jarri eta motorak bero mantentzeko. Saio batzuk ere egin ditut udan zehar eta rodaje horrek ere lagunduko dit, noski.

Bertsolaritza hitzaren eta komunikazioaren jolasa da. Hartzen ditugun rol desberdinetan norberaren ikuspuntua islatzen dugu eta eguneroko bizitzara da gure entrenamendua: Harremanak, liburuak, egunkariak, bizipenak...

Azken batean, esperientzia. Oholtzan nik nahi dut; ahali eta freskoen, bertan konektatuta egon; dakidana eta naizena erakutsi.

**Beteko al da berriro BEC? Osasuntsu al da bertsolaritza?**

Nik baietz esango nuke. Duela lau urtekoa festa mundiala izan zen. Izugarri gozatu genuen eta gehienak errepikatzeke gogoarekin joan ginen etxera. Dagoeneko, final laurdenetako lehen saioan hainbat entzule sarrerarik gabe geratu ziren.

Bertsolaritza osasuntsu dagoela begi bistan dago. Garai berrietara egokitzen jakin izan du, parte hartzaileen batzuek besteko adinari begiratu besterik ez dago. Gizarteko oso eremu desberdinetan du presentzia, zahar etxetan zein gaztetan antolatzen dira bertso saioak. Elkarteetan, aretoetan, telebistan, irratian, hezikuntzan... bertsoa euskal kulturaren baitako mugimendu bizia eta antolatua da.

**Zein zortzi bertsolari izango dira finalean? Sorpresarik izango al da?**

Aurreko Euskal Herrikoan finalista izan ziren gehienek errepikatuko dute, baina, sorpresaren bat edo beste izango dela uste dut. Izenak ematea zaila da. Benetan. Ez da ez bustitzearen, izen asko etortzen zaizkit burura. Denborak esango du. Ni poztuko nintzateke.

**Nor izango da txapeldun? Eta zeinen alde egingo duzu zuk?**

Andonik jantziko balu ez nintzateke harrituko, baina ez da segurua. Badira bere lekua betetzeko gai ikusten ditudanak. Zerbaitekin esaten dit aurten Maialenen urtea izango dela. Ojala!

**Oro har, zein maila dago? Estua izango al da finalea?**

Maila paregabea izango da eta lehia estua. Seguru.

**Zu kasualitatez sartuko bazina... ze litzateke zuretzat?**

Ez litzateke kasualitatez izango. Nik nahiago dut kasualitatearen sinetsi. Finalean kantatzeko lan asko egin behar da, ondo prestatu eta berezko dohainak erabili. Finalean kantatzea la ostia izango litzateke. Esperientzia ahaztezina, baina niri ez zait burutik pasa ere egiten. •

“ Bost-sei urte nituenean bertsotan noiz hasi nintzen galdetu zidan: "txikia nintzenean!" erantzun nion



Arg.: Galder Izagirre

**Finalerdietan kantatzeko txarteliek ez du oraindik galduta Amaia Agirre bertsolariak.**

Amaia Agirrek Bilbon kantatu zuen aurreko igandean, Arriaga Antzokian, eta laugarren izan zen sailkapenean, baina Iñaki Zelaia irabazlearengandik soilik 11,5 puntutara. 631,5, puntu mordoxka ditu eta hurrengo hiru kanporaketan menpe da finalerdietarako txartela lortzeko. Momentuz, bost lagun ditu atzetik eta Ustaritzen, Zarautzen eta Llaudion beste bertsolariak egindakoaren eta euren puntuen zain egon beharko du.